

EKIMEN
SINDIKALA
1995. erako
EGITASMOA



1 9 9 5 - U R T A R R I L A

E k i n t z a
Erreibindikatiboa

1.- Epe motzean (95. urtea) ekonomia, lan-mundua eta gizarte esparruak definituko dituzten onarriko faktoreak identifikatu	1
2.- Lan Erlazioen Euskal Markoaren eta Euskal Esparru Sozio-Ekonomikoaren sakonketa eta garapena	4
Lan erlazioen Euskal Markoa (LEEM-MVRL)	4
Euskal Esparru Sozio-Ekonomikoa (E.E.S.E.-E.S.E.V.)	5
3.- Iharduera Sindikalaren eredua	6
4.- Sindikatuen arteko harremanak	7
5.- Politika instituzionala	7
6.- Hainbat arazo sektorial	7
7.- Iharduera Sindikalaren egituraketa	8

LABen Iharduera Errebindikatiboaren helburuak kongresuan eta ondorengo analisisetan nahiko zehaztu baziren ere, lan honen bidez gure erakundearentzako lan esparruak finkatu nahi ditugu, ekonomia-, lan- eta gizarte-aldagaien baitan, eta ikuspuntu iraunkor eta sistematiko batetik abiatuta, gertakizunak, sindikatuen arteko harremanak eta abagadune bereziak behar bezala interpretatu ahal izateko.

Ildo honetatik, Iharduera Sindikalaren lan-plangintza osatzeko funtsezko zat jotzen ditugun lan-arlo batzuk proposatzen ditugu.

1.- Epe motzean (95. urtea) ekonomia, lan-mundua eta gizarte esparruak definituko dituzten oinarritzko faktoreak identifikatu

Helburua ez da esparru hauetan gertatutakoari buruzko analisia egitea soilik, baizik eta seguraski eraldaketak jasango dituzten elementuak zeintzuk diren jakin, eta gertatzera doana aurrikusi.

Abiapuntu honetatik, 95 urte honetan helburu orokorrak eta partaidetza sindikalaren lehentasunak zehaztu behar dira.

Argi dago ez garela esku hutsik abiatzen, eta hortaz, gure partaidetza sindikalaren proiektua moldatuko duten oinarritzko faktoreak defini ditzakegu oro har.

- Egoera ekonomikoa atzeraldiak nahiz berpizteak sortarazten dituzten azaleko mugimenduek eragina dago, eta hauek, iharduera ekonomiko eta sozialaren elementu nagusi gisa merkatua eta kapitalaren balorizazioa hartzen dituen garapen ereduaren baitan kokatzen dira. Kontinuismoak jotako egoera ekonomikoa da, egitura-erreformei aurre egiteko sektore publikoaren borondate politiko ezak eragindakoa. Beraz, politika ekonomiko neoliberalaren oinarritzko gaiak mantentzen dira, soldatetan ekonomiaren produktibitatearen pisua eta, merkatuan plangintza ekonomikoaren erantzukizuna kargatu nahi dituena. Estatuaren aurrekontuen azaleko azterketa egin ondoren, orain arte esandakoari buruzko zalantza izpirik ez daukagu. Gastuen partiden mozketa, iruzur fiskalaren onarpena eta zeharkako zergen gehikuntza, sektore publikoaren eraispena, hauekin guztiekin dihardute. Iazko helburu eta xede berdina duten aurrekontuak dira; konbergentzi planak 1997rako PIBa %6,7tik %3ra jaitsi nahi du, politika fiskala gogortuz eta gastua moztuz, gero eta argiago utziz pentsioak arriskutan daudela.
- Enpleguari dagokionez, hobera ez jotzeaz gain, hau sortzeko aukerak ere hutsalak dira. Produktibitatearen aldagaia hazkuntza ekonomikoaren gainetik dagoen testuinguruan, lan eta astialdiaren arteko denboraren banaketarentzat eta enpresa-etekinrentzat egiturazko neurririk ez egotea da egoeraren eragile nagusia.
- Erreformaren ondoren, estatu espainoleko lan-erlazioak, lan-baldintzen antolamendurako oinarritzko materien zentralizazioak jota daude. Lan Erreformatarako Euskal Mugimendu (LEEM) batean aurrera egiteko ahalmena, batetik abagadune politiko konkretuen menpe eta bestetik alderdi politikoek botere ezarriaren inguruan duten jokoaren eraginpean daude. Hau guztia sindikalismo espainarraren ahultasunari gehituta, lan-baldintzak oraindik ere gehiago indibidualizatzea eta desarautzea ekarriko du. Guztia ere, PSOEren noraezko politika ekonomikoaren alternatiba gisa, komenigarritasun politiko eta sindikalengatik paktu sozialaren mamua berpiztu nahi den testuinguru batean.
- Enpresaren barnean, lan-indarrak enpresariaren alde jarraituko dute, dela kontratuen behin-behinekotasunarengatik, dela lan-baldintzen antolamenduan enpresariari emandako kompetentziengatik, dela aurreko horiek negoziazio kolektiboan izango duten eraginagatik. Negoziazio Kolektiboa aurretiaz enpresariaren alde dago, bai langileen estatutuaren erreformagatik zein Ordenantzen ezabaketaren mehatxak suposatzen duenagatik.

Lan-baldintzen antolamenduko eta izaera ekonomikoa duten espedienteek, geografikoki eta funtzionalki aniztuko dute lan-mugikortasuna eta enpresen deslektzea, multinazionalen eta behin-behinekotasunaren onerako.

- Euskal administrazioak ez dira gai ez produktibitatearen defentsaren eta industrializazioaren programa bati aurre egiteko, ezta euskal esparruan ekonomiak duen munduratzeko erronkari aurre egingo dion garapen-eredu bat finkatzeko ere. Ez dute gaitasunik ezta interesik ere, esparru anitzetan sakontzea suposatuko lukeen erronka horri heltzeko:
 - a) Demokrazia ekonomiko eta sozialean sakondu, horretarako ezinbesteko delarik berregituraketa nazionalaren menpe egongo litzatekeen demokrazia politikoa.
 - b) Politika, ekonomia, lan eta gizarte mailan Euskal Herriaren herrialde ezberdinen artean ahalik eta konbergentzi dinamika gehien garatu.
 - c) Euskal sektore publikoa eragile bihurtu, plangintza eta kudeaketa tresnak, garapen-eredu alternatiboak, enplegua sortzeko politika aktiboak, azpiegiturak, industrializazioa eta ekoizpen-sarearen aniztasuna errebin-dikatuz.
- Babesik gabe geratzen ari den gizartea, egitura publikoak erasotzearen ondorioz pribatizazioaren alde ekin eta haustura soziala ekidingo duten oinarriko mailetara iristeraino; eta indargetzaile gisa, desberdintasun eta desegituraketa soziala erabiliz.

Gaur egun, eremu ideologikoan "gizarte kontratu" berri baten beharra dago, esanahi demokratiko zorrotzenez ulertuta, azken hamarkadetan lortutako ekoizpen mailak sozialki errentabilizatuko duena. Euskal langileak ekonomia bere gain hartu eta bere alde erabili behar du, desberdintasuna eta etsipenaren egitura soziala mantentzen duten adabaki eta lardaskerien dinamikaren kontra.

Argi dago sindikatu sozio-politiko gisa gure egoera gero eta legitimatuago dagoela instituzio publikoak lan-, gizarte- eta ekonomia-mailan eramaten ari diren ihardueragatik, eta beraz, LABek bere gain hartu behar du Euskal Langile Mugimenduan dagokion erantzukizuna. Horretarako, honen interesak eraikuntza nazionalako proiektuaren inguruan zehaztu beharko ditu, gaur egun ELMak behar duen proiektio eta batasuna eman baitiezaioko Eraikuntza Nazionalari.

2.- Lan Erlazioen Euskal Markoaren eta Euskal Esparru Sozio-Ekonomikoaren sakonketa eta garapena

LEEM eta EESE, abiapuntuko kontzeptuak beste hainbat elementuekin osatu behar dira, garatzen edota eragile bihurtzen lagungarri izango direnak.

Lan Erlazioen Euskal Markoa (LEEM-MVRL)

Negoiazio Kolektiboaren bidez, LEEMren zati garrantzitsua jartzen dugu jokoan, hortaz, ondoren aipatutako oinarri-zko helburuen inguruan jiratu beharko luke Negoiazio Kolektiboaren programazioak:

- 1) Negoiazio kolektiboaren euskal markoa eraiki
- 2) Euskal ingurura bertatik kanpo dauden osagaiak ekarriko dituzten akordioak lortu: lehenbailehen, Lan-Ordenantzak eta Lanbide Heziketa (Arautua, Okupazionala eta Jarraia).

- 3) N.K.ren bidez, lan-erreformaren ondorioak ezabatu eta murriztu.
- 4) 84 artikulua erreformaren ondoren, gure planteamenduen muga gorago jartzeko gai izan behar dugu, kontratazioak, mugikortasuna, lan-baldintzen antolamendua eta tankerako konpetentzietan erreformak dituen akatsak agerian uzteko.

Honek, hurrengo arloari buruzko lan espezifiko eskatzen digu:

- Euskal instituzioen gaitasun legislatiboa, lan-legeria erabaki eta partaidetza dinamikak bultzatu ahal izateko, bai konpetentziei dagokienez, baita Hegoaldeko lurralde-integrazioari begira ere.

Gai hauetaz gain, N.K.n gure presentziari buruzko plangintza proposatzen dugu, hala nola N.K.ren arloan Herrialdeko arduradunak eta sektoreak sartzea, eraginkorra izatea nahi badugu.

Euskal Esparru Sozio-Ekonomikoa (E.E.S.E.-E.S.E.V.)

INDUSTRIA-POLITIKA

Esparru honetan defentsiboki eta arazoa sortu ahala erantzuten ari gara batik-bat, baina ez gara gai izan industriaren bilakaeraren ikuspegi globala landu eta iharduera sindikal espezifiko batez jabetzeko.

Gatazka ugaritan parte hartzen dugu, baina hauen barnean gehiegitan galtzen gara, eta azkenean lortzen dugun informazioari ez diogu behar bezalako erabilera ematen, gure alternatiba egituratzen joateko.

Euskal industria, batez ere erdibideko produktuen fabrikaren itxura dauka, industria eta produktuaren behar bezalako aniztasunik gabekoa, garatu beharko litzatekeen barne eskaerari oso erantzun txikia emanez eta lan-kostuarekin lotutako produktibitate-kontzeptuan oinarritua.

Industri eredu hau, korporazio trasnasionalek eragindako aldaketan menpe dago, eta oso proiektio internazional ahula dauka.

Industria eta ekonomia-politikarako lan-talde bat antolatzekeo gai izan behar dugu, Iraunkor Nazionala sektoreen dinamika bereziekin erlazionatuko duena, honen barne, unibertsitatean zein arlo honekin zerikusia duten bestelako elkarte eta kolektiboetan aurki ditzakegun aukerak kontuan hartuz.

ENPLEGU-POLITIKA

Honi dagokionez, esparru honetan izan beharreko partaidetza-ildoan sakontzeko behar izugarria dugu, bai lanaldia-ren, aurrekontu politikaren, "makro" ikuspegiari dagokionez, zein kontratazio arloan, ohiz kanpoko ordutan, enplegu-politza eta abarren aldeko neurrien inguruan ere.

Dirudienez, gainera datorkigun egoera ekonomikoan, ekonomiak langabezi kopuru handiarekin batera izan dezake hazkundera, eta produktibitatearen hazkuntzak ez du ekarriko hazkuntza ekonomikorik, horrekin enplegua sortzeko aukerak ezertan geratuz.

Beraz, ezinbestekotzat jotzen da lan-denboraren banaketa egiteko politika, enplegu osoaren politikaren lagungarri gisa. Lanaldiak, denbora eta ondasunen banaketaren osagai den aldetik, enplegu osoaren politikaren ardatzean egon behar du.

Euskal Langile Mugimenduari (ELM) ikusarazi behar diogu lanaren eta astialdiaren banaketaren esanahia. Ekonomia-ren helburuak ez luke izan behar lana ematea edo edukitzea bizitza-kalitatea eskuratzeko aukera bakar gisa; aitzitik, gizarte guztiak izan beharko luke dauden baliabideek sortutako aberastasunak eskuratzeko aukera, horixe lortu beharko luke ekonomiak hain zuzen. Honen bidez, gizarte-subsidioen politikari, enpleguei, lanaldiari eta azken batean gizarte zuzen eta elkarzale bati aukera berriak zabalduko litzazkioke.

Gai honi helduz, funtsezkoa da langabeziak eta behin-behinekotasunak jotakoak euren askapenerako partaide aktibo bihurtzeko, beren autoestima garatuz eta borroka eta eraldaketaren eragile den ELMn sar daitezzen. Ildo honetatik langabetuen borroka gure proiektu sindikalaren barne dago, eta hala, sindikatu gisa ditugun baliabideak ezarri behar dizkiogu.

Ikuspegi honetatik, LAB Langabetuak finkatzearen saioek gure sindikatuari entitatea eta gero eta legitimitate gehiago emango diote.

GIZARTE POLITIKA

Eredu publikoa, Euskal Gizarte-Asegurantzaren prestazioak, finantziarioak, pentsio-fondoak, eta abar.

Enpresarien Gizarte-Asegurantzarako kotizazioak murrizteak, sistemaren "bidegarritasuna" baldintzatuko du, eta beraz, Gizarte-Asegurantzaren hurrengo erreformaren gako biek, sistemaren finantziarioa eta prestazioak alegia, gobernuek proposatutakoaren aurrean hausketa-alternatiba baten finkaketan sakontzea behartzen gaituzte.

Gizarte-Asegurantzaren bidegarritasuna bai baina Ejerzitoaren, Erregeren Etxearen edota Goardia Zibilarena eskatzen ez duten gobernuen argudioak neutralizatzeko ikuspegi ideologikotik abiatuta.

Atal honetan ezinbestekoa litzateke berehala sortzea gizarte-politikarako batzorde nazionala, Gizarte-Asegurantzaren erreforma, zerga-sistema eta prestazioen inguruko gaiak jorratzen joateko, hala nola Euskal Gizarte-Asegurantzaren garatzeko eman beharreko urratsak lantzeko.

Lan-ildo hauetan sakontzeaz gain, epe motzean, azken urteetan baino ausardia eta irmotasun handiagoz hartu behar dugun erronka dugu: **euskal komunitate autonomoen aurrekontuei** heldu behar diegu, eta gure egoera sozio-politikoaren erakusteko behar besteko finkotasun eta gaitasuna izan behar ditugu.

Halaber, garrantzitsua litzateke **Euskal Enpresa Publiko Industrialean eta Euskal Sektore Finantziarioan** izan beharreko partaidetza mota erabakitzeak **hausnarketa** egitea. Bai garapenerako partaidetza konkretuaren estrategiari dagokionez, baita kontrol eta funtzionamenduaren ereduari begira ere.

POLITIKA FISKALA

Gizarte-politikari dagokion planteamendu honekin batera, fiskalitatearen arazoari beste ikuspegi bat eman behar diogu, planteamendu instituzionalen ezberdina. Horretarako beharrezkoa da politika fiskalaren definizioan lan egin eta iruzur fiskala bi aldetatik salatzea: batetik, dagokiena ordaintzen ez duten guztien iruzurra eta bestetik, politika fiskalaren beraren langileekiko iruzurra.

EUSKAL INEMA SORTU

Honek bi erronka osagarri planteatzen dizkigu: batetik bere konfigurazioa finkatzeko urratsak eman eta bestetik, behin-behineko lanen enpresak garatzera eta eskaintzen kudeaketaren pribatizazioak, enplegu eskariak eta tankerakoak bultzatzera jotzen duten gobernu-ihardueren aurka egin.

3.- Iharduera Sindikalaren eredua

Iharduera sindikalaren arloa osatu behar dutenak lanean iharduera jarraia duten langileek eta jarraitasun hau ez dutenek (langabetuak, azpi-ekonomia, edota subsidio edo pentsioak jasotzen dituztenak) izan behar dutela adierazi nahi dugu.

Aldi berean, E.L.M.tik bultzatu behar dugun eraldaketa sozialaren erronkari aurre egingo dion iharduera sindikala behar dugu, eta honek gobernuen lan-, ekonomia- eta gizarte-politikaren maila guztiei aurre egitera behartzen gaitu, lana eta astialdi eta ondasunen banaketa, E.L.M.ren presentzia gizarte- eta ekonomia-politikaren zuzendaritzan, sektore publikoaren eredu eta dinamika, eta antzeko gaiei heldu beharrekin batera.

Aipatutako horiek eta bestelako elementuak izango dira beraz LABek eraman beharreko iharduera sindikalari ezaugarri propioak emango dizkietenak:

- E.L.M. bere osotasunean hartuko duen iharduera sindikala, eta langile mugimenduaren desegituraketa eta banaketari lan-indarraren konbergentziarako, egiturazko eta balorizaziozko erantzuna emango diona, lan-indar hori osatzen dutenak lanean, langabezian zein subsidio edo gizarte-prestazioak jasotzen daudela ere.

- Iharduera sindikal globala, koherentziazko egoera batetik parte hartuko duena, eta langile-talde bakoitzari eragiten dion arazoari erantzuna emango diona.
- Partaidetzazko iharduera sindikala. Militantziak honen diseinu eta egikaritzan erantzukizun zati bat izango luke, baita langileen autonomiaren sendoketan ere, gizartean euren toki propioa betetzeko.
- Iharduera sindikal erradikala. Gizarte-eraldaketa sustraietatik hasita planteatuko duena. Arazoen oinarriaraino joango dena eta ondo pentsatutako iharduera sindikal globala eta eraginkorra burutzeko behar dituen osagaiak hartuko dituena.
- Gizarte esparruan proiektatzeko eta gizartea bere proposamen eta errebindikazioen inguruan tinkotzeko gai izango den iharduera sindikala.

Funtsean, ELM birbaloratuko duen iharduera sindikala, Eraikuntza Nazionalaren proiektuak orain behar duen eragile aktiboa izan dadin.

Bai produktibitatearen defentsarako planteamendu ofizialetatik, baita lan-erreformari begira ere, jokoan dagoena da enpresan boterea zeinek eduki, eta enpresariak nola erabili lan-indarren gaitasunak, horretarako eraldaketekiko erresistentzia ezabatuz. Ildo honetatik ezinbestekoa da planteatzea enpresa barruan langileen boterearen arazoari nola heldu, bai lan-erlazioen gestioari dagokienean, baita etekinen banaketa edota inbertsio-politika, kontratazioak eta tankerakoei aurre egiteko ere.

4.- Sindikatuen arteko harremanak

Sindikatuen arteko harreman hauei buruz nahiko eztabaidatu dugu azken fasean, iharduera sindikalerako batasunari buruz alegia. Gaia agortu gabe dago eta komenigarria litzateke sindikatuen arteko harremanei berriz heltzea iharduera Sindikalerako planteatzen ditugun helburuen barnean.

5.- Politika instituzionala

Iharduera sindikala halaber esparru honetan finkatu behar dugu eta I.S. ren gure proiektuaren arabera zein instituzio eta nola parte hartu ikusi behar dugu, bi ikuspegitatik begira:

- Instituzioetatik sortzen diren gaietan parte hartu eta I.S. en gure proiektua lagunduko duten ekimenak planteatzeko erabili.
- Zerbitzu publikoen eta ekonomia-, lan- eta gizarte-erakundeen eredu demokratikoa jorratu. Honek, hurrengo puntura eramaten gaitu:

6.- Hainbat arazo sektorial

Iharduera Sindikalaren goiko bi elementu horiekin batera, ikuspegi sektorialetik begira I.S. globalaren osagai izateko nahiko garrantzia duten erronkei erantzun behar diegu. Hain zuzen ere, ondorengoei buruz ari gara:

- Funtzio publikoaren erreforma. Sektore publikoek eztabaidatzea izango genukeen alternatiba zehatza burutu beharko lukete.

- Gizarte-Asegurantzaren Erreforma
- Heziketa-Eredua

7.- Iharduera Sindikalaren egituraketa

Gure iharduera sindikala finkatuko duten arazo hauekin batera, behar bezalako antolaketa-diseinuak joan behar du, Iraunkor Nazionalaren proposamenen planteatzen denaren antzekoa.

Argi dago, eta hala adierazten du erakundean eztabaidarako jartzen dugun agiriak, iharduera sindikal mota askoz ere osotuagoa behar dela, soldaten eta lanaldiaren errebindikazio hutsa baino harantzago joango dena. Argi dago ere, lana duten langile-esparruari mugatutako partaidetza ez dela nahikoa proiektu eraldatzaile eta ezkertiar baterako, eta Eraikuntza Nazionalerako proiektuak, ELMren eginkizuna baloratuko duen iharduera sindikal sozio-politiko eskatzen ari dela.

Ikuspegi honetatik, hurrengo hiru oinarrizko mailetan antolaketa-dinamikak garatu eta aldatzea ezinbestekoa da:

- Maila sektorialean
- Lurralde mailan eta
- Lan-arlotan:

Sindikatuak dauden arloek berehalako berregokitzapena behar dute, oinarrizko bi beharrei erantzungo badiote:

- Batetik, lan honetan zehaztutako iharduera ereduaren euskarri izango diren arlo teknikoak bultzatu behar dira.
- Bestetik, Euskal Langile Mugimenduaren desegituraketaren aurka borrokatzeko, antolaketa-maila espezifikoak garatu behar ditugu.

Ildo honetatik, zera planteatzen dugu:

- Arlo juridiko eta ekonomikoen lan-plangintza,
- nazional mailan hiru arlo tekniko espezifiko egituratu gutxienez:

Lanbide-Heziketa
Lan-Osasuna eta ekologia
Lanaren antolaketa

• ELMaren desegituraketari erantzungo dioten partaidetza sindikaleko arloak garatzeko plana egin, bereziki kaltetutako taldeak sindikatuaren barrutik borrokatuko duten kide bihurtuko dituen. Beraz, premiazkoztat jotzen dugu

LAB LANGABETUAK
LAB GAZTEAK
LAB EMAKUMEAK

lehenbailehen garatzea, hala nola pentsionista autonomoak antolatzea bideratutako ekimen zehatzak burutzea. Arlo mota hauek dinamika orokor eta zehatz baten bidez sendotu behar dira sindikatuaren egitura, lurralde-dinamikaren bulkadan eragitearekin batera.